



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

EHIZA-POSTUAK

Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendi eta Natura Inguruneko Zuzendari Nagusia den Julian Unanue Bereziartua Jaunak honako hau jakinarazi dio Alkatetza honi herriko ehiztariei jakitera emateko, Larraulgo Ehiza-postuei buruz:

“Gure departamentuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko ohiko pasabideetan hegazi migratzaileen ehiza arautzeko Foru Agindua onartu du 2013ko uztailaren 16an. Foru Agindu horrek Gipuzkoako ohiko pasabideetako lerro eta postu baimenduen erregistroa sortzen du.

Erregistro horretan dauden lerroetan eta postuetan Foru Aginduan ezarritakoa aplikatu behar da, eta, beraz, Lurraldeko Debekualdien Urteko Aginduan zehaztutako pase garaian eta postuen antolakuntza eta zozketa egiten ez duten postuak ezingo dira baimendutako postutzat hartu.

Departamentuak Usarrabi inguruan dauden postuak aipatutako erregistroan sartu ditu. Ehiza lerroari Usarrabi izena jarri diogu eta, guztira, 83 postu daude baimenduta, gehienak Larraulen baina baita ere Asteasun eta Alkizan.

Horren ondorioz, denboraldia hasi baino lehen postuen kudeaketa antolatzen ez bada, Federazioaren bitartez, postu horietan ehiza debekatu egingo dugu.”

Besterik gabe, berri honen jakitun izateko bidaltzen dugu idatzi hau.

Larraulen, 2013ko irailaren 13an.

Alkateak

